

Kontabilitaterako Sarrera ikasgaiaren ebaluazioan egindako aldaketa

COVID19 pandemia dela eta ikasgai honen ebaluazioa online egitera behartuta gaude.

Arrazoi honengatik, ikasgai honen irakaskuntza-gida honela geratzen da ebaluaketari dagokionean:

Ezohiko Deialdia:

Ebaluaketa honela ezarrita zegoen:

Ez-ohiko deialdian aurkezten direnek, urtarrilaren bukaerako azterketa egitea erabakitzen dutenen antzeko azterketa izango dute, hau da, azterketa honetan hainbat alderdi baloratuko dira. Alde batetik, ariketa kontable batzuk (notaren %70a), bestetik, ikasturtean baloratutako gaitasuna, ikasketa autonomia, ariketa bat/ batzuen bitartez (notaren %30a). Kasu honetan ere, gaitasun honetarako erabiliko dira azaldu gabeko kasu kontableak, ebaluatzen den gaitasuna erakutsi beharko dute (azken finean ,KPO-a irakurtzeko eta interpretatzeko gaitasuna).

Hala ere, kurtsosan zehar zeharkako gaitasuna ebaluatzeko ariketak egin dituenak edota beste ariketa kontableak egin dituenak edota urtarrileko azterketa egin duenak gaindituta dituen zatiak ekiditeko aukera iznago du, non zati kontablea bitan bananduko den. %30eko balioa izango du kurtsoko ariketa kontableekin konpentsatu daitekeen zatiak eta %40eko balioa izango du urtarrileko azterketarekin konpentsatu daitekeen zati kontableak. Kasu guztietan, zati batean lehenengo deialdiko nota mantentzeko, zati horretan atera daitekeen notaren %50a izan behar du ikasleak. Bestalde, nota igo nahi duenak ez-ohiko deialdian lortzen duen nota izango du, nahiz eta lehenagoko nota txikiagoa izan.

Azterketan ez aurkeztea nahikoa izango da deialdi honi uko egiteko.

Ariketa/azterketa guztietan erabili ahal izango da bai kalkulagaiua bai KPO-a, apuntatuta/marraztuta ezer ez badago.

Orain, aipatutako arrazoirengatik, honela ebaluatzea proposatzen da:

1.- Eskubideak mantenduz:

Ez-ohiko deialdian aurkezten direnek, urtarrilaren bukaerako azterketa egitea erabakitzen dutenen antzeko azterketa izango dute, hau da, azterketa honetan hainbat alderdi baloratuko dira. Alde batetik, ariketa kontable batzuk (notaren %70a), bestetik, ikasturtean baloratutako gaitasuna, ikasketa autonomia, ariketa bat/ batzuen bitartez (notaren %30a). Kasu honetan ere, gaitasun honetarako erabiliko dira azaldu gabeko kasu kontableak, ebaluatzen den gaitasuna demostratu beharko dute (azken finean ,KPO-a irakurtzeko eta interpretatzeko gaitasuna).

Hala ere, kurtsosan zehar zeharkako gaitasuna ebaluatzeko ariketak egin dituenak edota beste ariketa kontableak egin dituenak edota urtarrileko azterketa egin duenak gaindituta dituen zatiak ekiditeko aukera iznago du, non zati kontablea bitan bananduko den. %30eko balioa izango du kurtsoko ariketa kontableekin konpentsatu daitekeen zatia eta %40eko balioa izango du urtarrileko azterketarekin konpentsatu daitekeen zati kontablea. Kasu guztietan, zati batean lehenengo deialdiko nota mantentzeko, zati horretan atera daitekeen notaren %50a izan behar du ikasleak. Bestalde, nota igo nahi duenak ez-ohiko deialdian lortzen duen nota izango du, nahiz eta lehenagoko nota txikiagoa izan.

Azterketan ez aurkeztea nahikoa izango da deialdi honi uko egiteko.

Ariketa/azterketa guztietan erabili ahal izango da bai kalkulagaiua bai KPO-a, apuntatuta/marraztuta ezer ez badago.

2.- Ebaluazioa (bukaerako azterketa) online egingo da galdetegi bidez salbu gaitasunaren proba, hau da, atal bakoitzerako galdetegi desberdinak sortuko dira ordutegi desberdinetan egiteko bai idazpenen atala baloratzeko eta baita urteko kontuei dagokien atala ebaluatzeko. Aldiz, gaitasuna ebaluatzeko ikasleak egin duen jardueraren soluzioa igo beharko du argazkia ginez edo eskaneatuta (beste ordutegi desberdin batean).

3.- Azterketa eguna baino lehen, ebaluaketaren (azterketaren) simulakroa egitea erabaki da Egelaren bitartez (<https://egela.ehu.eus/>) ekainaren 8an 14:00tik aurrera (azterketa egunean bezala, atal bakoitzak desberin bat izango du).

OHARRA: Zain gaude ebaluazio ez presentzial mota hau bai fakultateko batzordeak eta baita EHUko Graduen Komisioak onartu dezaten.